


EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Geoff Farina



Geoff Farina, Karate, The Secret Stars eta Glorytellers betiereko proiektuen arima, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaora etorriko da bere ahotsa eskaintzera, bere gitarra zaharraz lagunduta.

Karate hirukoteko lider gisa izan zen ezaguna, Geoff Farinak 1992an sortu baitzuen talde hori Gavin McCarthy bateria-jotzailearekin eta Jeffrey Goddard baxu-jotzailearekin batera. Artistak ondo erakutsi du gaitasuna duela musikagile eta gitarrista modura jarduteko, eta lankidetzan aritu da musika independentearen arloko proiektu ugarriz. Lanean jarduten eta Karate taldearekin birak egiten zituen bitartean, 1993an, Geoff Farinak Secret Stars sortu zuen Jodi Buonannorekin batera. Duoaren musikak gehiago jotzen zuen folkera, hasieran sortzaileen lagunentzat amodiozko kantuak idaztea zuen asmo bakarra, eta sarritan Farinaren gitarra akustikoaren laguntza zuen.

1998an, Farinak bakarkako lehen lana atera zuen, *Usonian Dream Sequence*, Karateren rock elektrikoaren eta Secret Stars-en eragin erromantikoaren bide erdian. Bakarkako diskografia berehala ugaldtu zen, hurrengo urteko *Steely Dan 7" lanarekin* eta 2001eko *Reverse Eclipse* diskoarekin; biak ala biak Southern Recordsek ekoitzi zituen. 2002an Blobscape atera zuen Kimchee Records-ekin; eta 2005ean bi lan hauek argitaratu zituen: *New Salt* Xeng Records-en eta *Already Told You* Southern Records-en. 2006an *Almanaque* lana atera zen Atavisticen. Azken lan horren ondoren, artistak beste bide batzuk urratu zituen, era askotako proiektuekin, esate baterako, Glorytellers, Ardecore, Bando eta Exit Verse-rekin, Chris Brokawekin grabatuz (ex-Come) eta bakarka.



Azaroak 22, ostirala

21:00

Kulturen Ataria
Igerilekuaren argi-zuloaren
azpian

12€ /10€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus



 geoffarina.com

 [@jerome.bel.79](https://www.facebook.com/jerome.bel.79)

 [#jêrômebel](https://www.instagram.com/jeromebel)

